

## URUMEAN LEGEZ-KANPO EGITEN DIREN UR-ISURIEN INGURUKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko uztailaren 11n Lurralde Garapen eta Planifikazio batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Apirilean, Loiolako bizilagunek jakinarazi ziguten Urdintxo zubi azpian ur zikin isuria egiten ari zela apiriletik. Ura hodi batetik ateratzen omen zen Urumeara eta oso zikin zegoela antzematen zen. Hau ikusita, maiatzeko batzordeetan galdera egin genion zinegotzi ordezkariari eta hark erantzun zuen udal teknikariek zonaldea aztertu zutela eta, hain zuzen ere, ur zikin isuria ikusi zutela. Ordezkariak azaldu zuen ura Topoaren obra batzuetatik zetorrela, obretako hustubidea gaizki konektatua zutelako. Aipatu zuenez, Udalak Ura Agentziari helarazi zion abisua, eta honek expediente bat ireki zuen, hustubidea saneamendu sarearekin konektatzeko agindua emanaz.

Maiatzean Egiako bizilagunak izan dira beste ur-isuri bat salatu dutenak; kasu honetan, autobus geltokiaren pareko estolderia batetik.

Bi talde ekologistek ere -Ekologistak Martxan Gipuzkoa eta Eguzki- antzeko egoerak salatu dituzte Molinaoko zonaldean. Kasu honetan ere Ura Agentziak legez kanpoko ur-isuriak egiten direla egiaztatu du.

Uztailaren 11n egindako batzordean, Miguel Ángel Diez zinegotzia interpelatu genuen eta honek aitortu zuen Loiola eta Egiako kasuetan ez zuela bizilagunen salaketan berri izan. Horrek harritu egiten gaitu, bizilagunen eskaerak egunero daudelako ordezkari politikoen esku udal-erregistroaren bidez eta webguneko iradokizun postontziaren bidez.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

-Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Urumean egiten diren legez kanpoko ur-  
isuriaren kontrola aregotu dezala, Ura Agentziarekin batera, eta bizilagunen salaketak  
aintzat har ditzala haiek antzemateko.

Donostian, 2016ko uztailaren 15ean

Olaia Duarte López  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**